BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

4493

EBAZPENA, 2013ko irailaren 18koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, 2013. urtean enpresei eta entitate pribatuei diru-laguntzak emateko eta ukatzeko dena. Diru-laguntza horiek aholkularitza-enpresa homologatuak kontratatzeko dira, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnosia eta berdintasun-plana egin ditzaten.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2013ko maiatzaren 24ko Ebazpenaren bidez, 2013. urtean enpresei eta entitate pribatuei diru-laguntzak emateko deialdia egin zen (2013ko ekainaren 11ko EHAA, 111. zk.). Diru-laguntza horiek aholkularitza-enpresa homologatuak kontratatzeko emango dira, emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnosia eta berdintasun-plana egin ditzaten.

Ebazpen horren 12.1 artikuluan ezartzen denez, eskabideak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen batez ebatziko dira, horretarako izendatutako Hautaketa Batzordeak proposatuta. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, jendeak horren berri izan dezan.

Artikulu horren 3. paragrafoan ezarritakoaren arabera, laguntzak emateko ebazpen honetan zehazten dira diru-laguntza eman eta ukatu zaien enpresak eta entitateak, izendatu zaizkien diru-zenbatekoak eta, onuradunen batek uko eginez gero, ordezko izango diren entitateak.

Adierazitakoagatik, Hautaketa Batzordeak proposatutakoa kontuan hartuta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Ebazpen honen I. eranskinean dauden enpresa eta entitate pribatuei diru-laguntzak ematea, bakoitzari izendatu zaion diru-zenbatekoaz. Guztira, laurogeita hamasei mila euro eman dira (96.000).

Bigarrena.– Ebazpen honen II. eranskinean aipatzen diren enpresa eta entitate pribatuak ordezko izendatzea. Gehienez jaso lezaketen zenbatekoa ere zehazten da.

Hirugarrena.– Ebazpen honen III. eranskinean aipatzen diren enpresa eta entitate pribatuei diru-laguntzak ukatzea, ukapenaren arrazoia esanez.

Laugarrena.– Entitate eta enpresei gogoraraztzen zaie ezen, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2013ko maiatzaren 24ko Ebazpenaren 6. artikulua aplikatuz, laguntza hauen entitate eta enpresa onuradunek Lankidetza Erakunde bihurtu behar dutela, eta, horretarako, espresuki egin behar dute eskabidea, emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunerako Lankidetza Erakunde figura sortzen duen azaroaren 8ko 424/1994 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena.– Laguntza hauen entitate eta enpresa onuradunek 15 egun izango dituzte –jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera– diru-laguntzei uko egiteko, halaxe ezartzen baita Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2013ko maiatzaren 24ko Ebazpenaren 13. artikuluan.

Seigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadila agintzea.

Zazpigarrena.– Ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, interesdunek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik aurrera; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete dagokion administrazioarekiko auzietako epaitegian, hil biko epean, ebazpena jaso eta biharamunetik aurrera. Hala agintzen da uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3 artikuluan eta 46. artikuluko 1. eta 4. paragrafoetan (29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzekoa).

Vitoria-Gasteiz, 2013ko irailaren 18a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MIREN IZASKUN LANDAIDA LARIZGOITIA.

I. ERANSKINA

ENPRESA ETA ENTITATE ONURADUNAK

Esp. zk.	Eskatzailea	Zenbatekoa (eurotan)
001-2013-DPI	Excavaciones y Obras De Diego S.L.	1.735
017-2013-DPI	Gaia	7.920
029-2013-DPI	Construcciones y Promociones Balzola, S.A.	5.365
014-2013-DPI	Instituto de Reintegración Social de Bizkaia	6.640
026-2013-DPI	Euskarri Koop.E.	4.986
021-2013-DPI	Ipace Psicología Aplicada, S.L.	3.165
007-2013-DPI	Asociacion Askabide Liberacion	6.640
027-2013-DPI	Bidegintza Elkartea	6.640
016-2013-DPI	Centro de Acogida Lagun Artean	6.640
020-2013-DPI	Alkar Biziz	6.400
028-2013-DPI	Lurgoien, S.A.	3.285
011-2013-DPI	Construcciones Murias S.A.	6.269
013-2013-DPI	Asociación Arrats	5.448
012-2013-DPI	Transbisa Gestion de Infraestructuras S.A.	4.250
002-2013-DPI	Autobuses La Guipuzcoana S.l.	2.690
006-2013-DPI	Asociacon De Ayuda En Carretera DYA	10.000
019-2013-DPI	Asociación Educativa Berriztu	7.927
TOTAL		96.000

II. ERANSKINA

ENPRESA ETA ENTITATE ORDEZKOAK

Esp. zk.	Eskatzailea	Zenbatekoa gehienez (eurotan)
024-2013-DPI	Asociación Bizitegi	10.000
004-2013-DPI	Compañía de Servicios Sociales San Ignacio, S.A.U.	8.000
010-2013-DPI	ST3 Asociación para la Promoción y El Fortalecimiento del Tercer Sector	8.032
015-2013-DPI	Beascoa, Elorriaga Eta Iribar, S.L. (Grupo Torrezuri)	7.000
022-2013-DPI	Huhezi Koop. E.	10.000

III. ERANSKINA

UKATUTAKOAK

Esp. Zk.	Eskatzailea	Arrazoia
005-2013-DPI	Autocares Díez, S.A.	Ez du lortu deialdian eskatzen den gutxieneko puntuazioa
009-2013-DPI	Transitia, S.L.	Ez du lortu deialdian eskatzen den gutxieneko puntuazioa
025-2013-DPI	Asociación Uribe Costa a favor de personas con discapacidad	Ez du lortu deialdian eskatzen den gutxieneko puntuazioa
018-2013-DPI	Hotel Seminario, S.L.	Ez du lortu deialdian eskatzen den gutxieneko puntuazioa
023-2013-DPI	Construcciones Iturrioz	Ez du lortu deialdian eskatzen den gutxieneko puntuazioa
003-2013-DPI	Sustatuz Lan Talde	Ez dago deialdiaren xedearen baitan
008-2013-DPI	Compañía del tranvía eléctrico de San Sebastián a Tolosa	Ez dago deialdiaren xedearen baitan